

Ez hutsik egin Santo Tomas azokan

Abenduaren 15ean Santo Tomas azoka izango da herriko pilota-lekuan. Iazko bideari jarraituz, txistorra eta talo postuez gain, azoka ere izango da. Baina, badago gehiago ere. Izan ere, baserrietan ekoizten den babarruna eta sagardoa epaituko baita bi lehiaketan bitartez. Herritarrek baserriko sagardoa dastatzeko aukera izateaz gainera, sagardoa epaitzeko tartea ere izango dute. Baserriko produktuak kalera ateratzeko saioa da Ziortzak, Noaua! Kultur Elkarteak eta Usurbilgo udalak antolatutakoa. Gainera, Ixabel III.a euskal arrazako zerria ere bertan egongo da nork eraman zain.

Esan bezala, beraz, abenduaren 15eko azokan lau protagonista nagusi izango ditugu; txistorra, zerria, babarruna eta sagardoa. Orain arte askok eman dute izena babarrun lehiaketan nahiz sagardo lehiaketan. 22 babarrun ekizlek eman dute izena; Berritza Barrena, Olanoeñan, Zugasti, Portu, Arratzain Berri, Gaztañaga, Arratzain, Markel Olaizola, Mikel Rekondo, Etxarri, Gorostidi, Bixenta Manterola, Aldagorri, Zumitza, Bizkarre, Berritza Bitarte, Martin Irazusta, Pokopandegi, Galardi, Agerre eta Illunbe. Oraindik ere baduzu aukera; nahi izanez gero Noaua!ra deituta (943 36 03 21) edota egunean bertan goizeko 9:30etatik aurrera ekarrita.

EGITARAUA

- 9:00-10:30: Babarrun lehiaketarako izen-amatea

- 11:00: Azoka ireikera eta babarrun lehiaketaren hasiera.

12:00: Herriko baserrietan egiten den sagardo lehiaketa eta dastaketa.

Goiz osoan zehar txistorra eta talo postuak egongo dira. Goiza alaitzeaz herriko trikitilariak arduratuko dira.

- 13:00: Ixabel III.aren zozketa. Ondoren, babarrun eta sagardo lehiaketan emaitzak.



ZIORTZAKO GAZTEEK TXISTORRA ETA SALDA PRESTATUKO DUTE.

Lehiaketa honetan epaimahai lanetan herriko dendariak arituko dira eta Tolosako teknikariak izango dituzte laguntzaile.

Bestetik, baserriko sagardo lehiaketa izango dugu. Honako baserriek hartuko dute parte: Zugasti, Olanoeña, Arratzain, Etxetxo, Gorostidi, Arratzain Berri, Zumitza eta Berritza Barrena. Arestian esan bezala, oraindik garaiz zabiltzate izena emateko. Lehiaketaz gain, sagardoa dastagai jarriko da eta herritarrek ere sagardo onena epaitu ahal izango dute. Iaz bezala, aurten ere epaimahai kideak herriko elkarteetako ordezkariak izango ditugu. Bestalde, azoka ere izango da eta oraindik baserriar gutxi animatu bada ere, gonbita luzatuta dago. Besteak beste, postu hauek ikusi ahal izango dira: Goenaga, Zugasti baserria, Markel Olaizola, Etxarri, Urtinea, Zatarain Etxe Berri eta Etxetxo.

Baina, hau guztiaz gain bada ekitaldi gehiagorik ere. Ziortzak txistorra eta talo postua jarriko baitute eta Ixabel III.a euskal arrazako zerria zozketatuko baita. Bertsolariak eta trikitilariak ere ez dira faltako. Beraz, badakizue, animatu eta azaldu pilotalekutik abenduaren 15ean.

“HERRIAK BADAKI”

LIBURUA ABENDUAREN
13AN AURKEZTUKO DA

Duela bizpahiru urte “Zubieta, mila urteko herria” liburuarekin hasitako argitalpenen bideari jarraitu nahian, aurtengo gabonetan Etxerat eta Errepresioaren aurkako taldeek Usurbilgo azken 28 urtetako memoria errepresioa jaso nahian garatutako lana kale-ratuko dugu. Bi talde hauek duela bi urte Noaua! Kultur Elkarteak luzaturiko bekaren bitartez egin dute aipatu bilduma. Liburu honen argitarapena Udalak emandako babes ekonomikoari esker posible izan da.

Liburua “Herriak badaki” titulupean “bataiatu” dute eta bertan 1973tik 2002a arteko Usurbilgo memoria errepresioa biltzen da. Egileek liburuaren sarreran lan honen zergaitia aipatzen dute: “belaunaldi gazteek jakin dezaten eta zaharragoek gogora ekarri dezaten, egokia iruditutako zaigu bilduma hau lantzea, finean oroitzea baita antzeko izugarrikeriak berriro ez gertatzeko bide eragin-korrenetariko bat”.

Liburuaren argibide gehiago antolatu aurkezpean izango dituzu, beraz, hitzordua hauxe: abenduaren 13an, arratseko 19:00tan udaleko pleno aretoan.

